

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

GRADUA: KAZETARITZA

IKASTURTEA: 2014 / 2015

Txinparta kultur gehigarria

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Leire Elustondo Quiñones
Zuzendaria: Iñaki Lazkano Arrillaga



Data: 2015eko ekainaren 26a

Aurkibidea

Sarrera	2
Garapena	3
Idazkera	3
Diseinua	6
Ondorioak	7
Bibliografia.....	9
Iturri pertsonalak	9
Iturri dokumentalak	10
Eranskinak	12

Sarrera

Lau urteotan ikasitakoaren emaitza da *Txinparta* kultur gehigarria. Bi erreportaje, elkarrizketa literario bat, bi elkarrizketa zuzen, hiru kritika eta soslai bat ere aurki daitezke hamasei orrialdeetan barrena.

Kulturaren aurpegi ezberdinek lekua dute idatzian. Musikak, zinemak, antzerkiak, literaturak, eta dantzak, zehazki.

Euskal kultura eta kanpoko kultura nola ezkontzen diren aztertzen du lanak, hemengotzat jotzen dena ezbaian jarriz, kanpokoari lekua eginez. Izan ere, kulturaren espektro zabalari erreparatzen zaio, arte adierazpide ezberdinak jasoz eta maila berean jarriz.

Batez ere, komunikabidetan oihartzun handirik ez duten diziplinak dira jaun eta jabe. Ohikotasunetik urrunduz, operari, euskal rapari, flamenkoari, eta lindy hopari arreta berezia eskaini zaielarik. Funtsean irakurleari zer pentsatua eman nahi dio *Txinpartak*, eskemak hautsi ditzan, zerotik has dadin.

Gauzak horrela, kultura zentzu zabalean ulertaraztea du helburu kultur gehigarriak. Euskal Herriko kulturak txinparta berezia duelako, merezi du begiak irekitzea, belarriak zabaltea.

Garapena

Idazkera

Buru - hauste handiak eragiten ditu kultur gehigarri baten sorkuntzak. Ez da lan erraza, denbora eta originaltasuna eskatzen dituen lana izaki. Bide horretan, asko izan dira hartu beharreko erabakiak, aurre egin beharreko arazoak.

Denbora falta izan da lanaren arerio nagusia, 2014ko abendutik 2015eko iraila bitarteko idazlana izanik, ezin baitzaio gaurkotasanari heldu. Horregatik, atenporalitatea izan dut oinarri, denboraren joanean, iraganean geratuko ez diren gaiak onduz.

Musikak betetzen ditu aldizkarian orrialde gehien. Bereziki, Maite Idirin Solatxiri egindako elkarrizketak. Idirin eraman baitut azalera eta hari eskaini baitiot tarterik handiena. Haren bizitzari eta musika ibilbideari ikusgarritasuna ematea funtsezkotzat jotzen dut. Batetik, *Ez Dok Amairu* mugimenduak itzalean utzi zuelako, eta bestetik operak ez duelako nahi adina oihartzunik hedabide handietan.

Telefonoz jarri nintzen harremanetan Idirinekin, eta Ugaoko Zeberio auzoko baserrian aurrez aurre elkarrizketatu nuen. Ugaotarra ez ezik, Jokin Apalategi Begiristain, haren senarra, ere batu zen solasaldira. Luze jo zuen elkarrizketak. Bost orduz luzatu zitzaidan egonaldia. Kamera soinean eraman nuen arren, ez nuen argazkirik ateratzeko tarterik izan, iluntzeko hamarrak eta erdiak zirelako jada. Horregatik, Euskal Telebistako *Sei argazkitan* saioaren web gunean sartu, eta haren argazkiak bildu nituen.

1968an Parisko kaleetan gertatutako matxinada interesgarria iruditzen zaidanez, eta Idirinek bertan ereindako uzta Vincennes unibertsitatean jaso zuenez, pasarte horri tarte bat egin diot zatiduran.

Musikarekin jarraituz, euskal rapa izan dut ardatz *Errima aurkituz* erreportajea. Horretarako, rap munduan oihartzuna duten lau lagun elkarrizketatzea otu zitzaidan. Hala nola, Eneko Axpe Iza "Maisha MC", Unai Neira Aiestaran "Norzzone", Estefania Beneito Lasa "Fani" eta Aritz Usandizaga "Aritz Sound System".

Zorrotzaurreko 6. Pabiloira deituta lortu nuen Eneko Axpe “Maisha MC” rap abeslariarekin harremanetan jartzea. Ez nuen aurrez aurre elkarrizketatzeko paradarik izan, gure ordutegiak batera ezinak zirelako. Doktoretza tesiaren harira, atzerrira jo behar zuen Axpek, eta denboraz larri aurkitu nuen. Beraz, e - postaz galdera sorta bidali nion eta Londrestik erantzun zidan. Oso lagungarri egin zitzaidan, alde batetik berak jarri zidalako “Norzzzone” eta “Fani” rap abeslariarekin harremanetan. Eta bestetik, Ion Andoni del Amoren *Party and Borroka* tesia e- postaz bidali zidalako.

NizuriTazuneri bikotearen abeslariak dira “Norzzzone” eta “Fani”. Biak donostiarrak izanik, Donostiako Xanti jatetxean batu ginen. Elkarrizketa egin ondotik, gertu zegoen skate parkera jo genuen argazkiak ateratzeko aitzakian.

“Aritz Sound System” musika jartzaileari telefonoz deitu nion baina, ez ninduen hartu. Beraz, testu mezua bidali nion elkarrizketatzeko asmoa agertuz. Ezin izan genuen elkarrizketa lotu, osasunez larri zegoela erantzun zidalako. Dena dela, harekin gogoratu izana eskertu zidan.

Arestian esan bezala, Axpek eman zidan Ion Andoni del Amo durangarrak idatzirikoa *Party and Borroka* tesiaren berri. Del Amori telefonoz deitu, eta Durangoko Plateruena antzokian lotu genuen elkarrizketa. Rapa ez ezik, rocka, punka, euskal musika, musika komertziala, gazteak, festa eta abar luze bat izan genuen mintzagai.

Musika gaia ustiatu ondotik, **dantzari** tarte bat eskaintzea pentsatu nuen. Euskal hedabideetan apenas lekurik duten dantzak etorri zitzaizkidan gogora, eta lindy hopa eta flamenkoa erreportaje batean jasotzea pentsatu nuen. Lindy hoparen enbaxadorea elkarrizketatzeko, Ana Minguez Bazenekin jarri nintzen harremanetan, bera baita hutsetik swing kultura gurean eraiki duena. Donostian elkarrizketatu nuen, baita argazki albuma egin ere.

Azken urteotan Etxebarrietaren takoi hotsek oihartzun handia dutenez, telefonoz deitu nion flamenkoaz luze eta zabal solasteko. *Gorputzak hitza hartzen duenean* erreportajea borobiltzeko, “kanpotik” etorritako dantzak, euskal dantzekin uztartzea otu zitzaidan. Horretarako, Patxi Laborda Larrearengana jo, eta Bilbao Musika Eskolan hartu ninduen. Oso aberasgarria egin zait iturri hauekin izandako solasaldia, hiru dantza mota ezberdinetako irakasleak izan arren, elkarren kidekoak direlako.

Erreportajeak zehaztu ondotik, kazetaritza genero berri bati heldu nion; **elkarrizketari**. Aitziber Garmendia Mendizabal, bizitza erdia baino gehiago oholtza gainean daraman antzezlea etorri zitzaidan gogora. Miramonen elkarrizketatu nuen, eta bere ibilbide oparoaren eta emakumezkoen egoeraren gaineko gogoetak jaso nituen.

Antzerki eta zinemagintzan gehiago sakondu nahian, Telmo Irurera Uriarengana jo nuen elkarrizketa berezi bat egiteko asmoz. Antzezlea ez ezik, zuzendaria eta gidoilaria da Irureta. Bi urte zituenetik gurpildun aulkian dagoen arren, askatasun osoz mugitzen da handik hona, hemendik hara.

Oholtza gainean jarraituz, oholtzaren bi aldeetan fina den Joseba Erkiaga Cillonizen **soslaia** egitea pentsatu nuen. Horretarako, Arriaga antzokira deitu eta antzokian bertan izan genuen solasaldia. Erkiagak *Itoiz* musika taldean eman zituen hasierako urteak flauta jotzen. Gaur egun ordea, izen handiko pertsonen ondoan dihardu erregidore.

Iritzi generoek ere tarterik dute *Txinparta* aldizkarian. Lanari koherentzia eta batasuna emate aldera, mahai beraren bueltan jesartzen dira hiru kritikak, Lasa eta Zabalaren hilketaz mintzo direlarik.

Aurreneko kritikak, Harkaitz Canoren *Twist: izaki intermitenteak* liburua hartzen du oinarri, eta ideia makabroen bila jartzen du irakurlea. Pablo Maloren *Lasa eta Zabala* filmaz mintzo da bigarrena, lerro arteko irakurketa bultzatzen duelarik. Hirugarren kritikak ere *Lasa eta Zabala* film luzea du ardatz, baina musikaren neurriari erreparatzen dio.

Diseinua

Diseinuak azken emaitza erakargarri egiten duenez, bere abantailak ustiatu ditut, lana borobiltze aldera. Horretarako, Kazetaritza Graduan ikasitako diseinu teknikak berreskuratu ditut, Adobe InDesign CS4 programa baliatuz.

Argitasunetik eta **sinpletasunetik** edaten du *Txinparta* kultur gehigarriak. Estilo minimalistari jarraitzen dio, edukia argi eta garbi plazaratzea helburu. Izan ere, testua bera da aldizkariko protagonista, irudia lagungarri duelarik.

Gehigarriaren aurkezpena aberaste aldera, Pristina, Book Antiqua eta Times New Roman **letra tipoak** baliatu ditut aldizkariaren azalean. Ondorengo orrialdeetan aldiz, Times New Roman letra tipoa da jaun eta jabe.

Gehigarriko sailak bereizteko, sailkapen klasikoa baliatu dut, atalak begi kolpe batean antzemateko moduan jarritz. Horretarako, 32 puntuko Times New Roman etzana baliatu dut. Titularretan hamazazpi puntutik gorako hizkiak erabili ditut. Sarrerak eta nabarmendutako aipuak hamalau puntuko Times New Roman etzanean irakur daitezke. Eta gorputzean hamabi puntuko letra tipoa erabiltzen da.

Argazkietako asko nik neuk atera ditut, hizlariak elkarrizketatu ondotik. Beste zenbait irudi ordea, sarean aurkitu ditut. Irudiaren egilea, eta argazkiaren nondik norakoak bederatzi puntuko argazki - oinean daude zehaztuta.

Ondorioak

Lau urtez ereindako uztaren emaitza da *Txinparta*, urte hauetan ikasitakoa biltzen duelarik. Hainbat hilabetez ondutako lan honek, erlojuaren kontra egin du aurrera, denbora falta izan baitu bidelagun. Kontuak kontu, azken emaitza esku artean dugu, eta honako hau da ondorioztatu dudana:

- ✓ Kazetaritza Graduan ikasitakoa oso baliagarria egin zait aldizkaria egiterako orduan. Izan ere, informazio, interpretazio eta iritzi generoak lantzen ikasi dut lau urteotan, eta ikasitako horri jarraipena eman diot gradu amaierako lanean.
- ✓ Iturri pertsonalen garrantziaz jabetu naiz, aurrez aurreko elkarrizketatuari zuku handia ateratzen zaiolako. Horregatik ia elkarrizketa guztiak, aurrez aurre egin ditut. Aurrez aurrekoetan berbek ez ezik, keinu, erreakzio eta jarrerak berebiziko garrantzia izan dute. Bi elkarrizketa ordea, telefonoz edo e-posta bitartez egin behar izan ditut, aurrez aurre egiteko paradarik izan ez dudalako. Azken hauek hotzagoak izan dira, hitzetara mugatuak.
- ✓ Aurrekoarekin jarraituz, kazetari orok funtsezkoa du agenda. Batzuetan zuzenean helduko da elkarrizketatu gura duen iturrira. Besteetan aldiz, zeharkako bideari heldu beharko dio, iturria non eta noiz aurki dezakeen etengabe galdetuz.
- ✓ Gaian sakontzeko eta elkarrizketak behar bezala prestatzeko, azpimarragarria da dokumentazio lana. Aurrez dokumentatu barik ez baitago zer eginik, ezjakintasuna eta gaiarekiko interes eza agertuko baitugu. Kontrara, sukaldeko lan hori egin ondotik, erosoago izango gara elkarrizketatuaren aurrean.
- ✓ Internetek baliabide ugari ditu dokumentaziorako, baina tentuz jokatu behar da, itsaso zabal horretan itozteko arriskua baitago. Horregatik, munta handia du aurkitutako informazioa kontrastatzeak, eta gune fidagarriak kontsultatzeak.
- ✓ Kultur gehigarri baten sorkuntzak buruhauste handiak eragiten ditu, eta asko dira hartu beharreko erabakiak; zer kontatu?, nola?, zergatik?... Auzia argitu ostean, ahalik eta modu erakargarrienenean defendatu behar da deliberatutako hori.

- ✓ Edukia ahalik eta antolatuen azaltzeko, diseinu teknikak baliatu ditut. Horretarako, diseinuaren inguruan ikasitako oinarria lagungarri egin zait, baina diseinuan sakondu behar izan dut, Adobe InDesign CS4 programa goitik behera mendean hartzen ikasiz.

- ✓ Diseinuaren hobe beharrez, testu originala aldatu behar izan dut sarritan. Izan ere, elkarrizketaren zatiren bat moztu behar izan dut, erreportajearen hainbat pasarte kendu, edo hainbat anekdota ezabatu, aurretik egindako lanaren kaltetan.

Bibliografia

Iturri pertsonalak

- **APALATEGI BEGIRISTAIN, JOKIN.** Soziologoa eta idazlea.
- **AXPE IZA, ENEKO “Maisha”.** Rap abeslaria, musika ekoizlea, zinemagilea, fisikaria eta nano - teknologian doktorea.
- **BENEYTO LASA, ESTEFANIA.** Rap abeslaria.
- **DEL AMO CASTRO, ION ANDONI.** Telekomunikazioan ingeniaria, soziologian lizentziaduna eta Gizarte Komunikazioan doktore.
- **ERKIAGA CILLONIZ, JOSEBA.** Arriaga antzokiko erregidorea.
- **ETXEBARRIETA LASHERAS, ASKOA.** Flamenko dantzaria eta dantza irakaslea.
- **GARMENDIA MENDIZABA, AITZIBER.** Antzezlea.
- **IDIRIN SOLATXI, MAITE.** Abeslaria.
- **IRURETA URIA, TELMO.** Zinema zuzendaria, antzezlea eta gidoilaria.
- **LABORDA LARREA, PATXI.** Dantza irakasle eta koreografoa.
- **MINGUEZ BAZAN, ANA.** Lindy hop dantzaria.
- **NEIRA AIESTARAN, UNAI “Norzzone”.** Rap abeslaria.

Iturri dokumentalak

AIKO dantza taldearen webgunea: <http://aikotaldea.eus/berriak.php?idioma=eu>

ARAOLAZA ARRIETA, OIER (2012). *Euskal dantza, La danza vasca, Basque Dance*. Etxepare Euskal Institutua.

ARRIAGA ANTZOKIAREN webgunea:

http://www.teatroarriaga.com/home.php?idioma=_eu

AUÑAMENDI EUSKO ENTZIKLOPEDIAREN webgunea:

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/72865>

ARGIA aldizkariaren ataria: <http://www.argia.eus/>

BERRIA egunkariaren bertsio digitala: <http://www.berria.eus/>

BERRIAREN euskal musikaren ataria: <http://www.badok.info/>

DEIA egunkariaren bertsio digitala: <http://www.deia.com/>

DEL AMO, CASTRO, ION ANDONI (2014). *Party & Borroka* doktore tesia. EHU, Leioa

EITB komunikazio taldearen ataria: <http://www.eitb.eus/>

EL PAÍS egunkariaren bertsio digitala: <http://elpais.com/>

EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEAREN webgunea: <http://www.kantuzale.net/>

ETXEBARRIETA, ASKOA webgune pertsonala: <http://lapulgaflamenco.com/acerca-de/>

ERESBIL Musikaren Euskal Artxibategiaren webgunea: <http://www.eresbil.com/>

GAIGNE, PASCAL webgune pertsonala: <http://www.pascalgaigne.com/es/biografia>

GAUR 8ren ataria: <http://www.gaur8.info/index.php>

GAZTEZULO hilabetekariaren bertsio digitala: <http://www.gaztezulo.eus/hasiera>

GOIENA komunikazio taldearen bertsio digitala: <http://goiena.eus/>

HITZA-ren bertsio digitala: <http://hitza.eus/>

IMDB webgunea: <http://www.imdb.com/>

MANNING, FRANKIE webgune pertsonala: <http://www.frankiemanning.com/>

TAUPAKA webgunea: <http://taupaka.com/>

Eranskinak

Elkarrizketatuei egindako galderak.

I. Askoa Etxebarrieta Lasheras, flamenko dantzaria (telefono bidez)

1. Zer dela - eta hasi zinen dantza klasikoa ikasten?
2. Nola hartu zuten zure gurasoek flamenkoa dantzatzeko hasia?
3. Bateria heldu zenion ondoren ...
4. Zer eman zizun Andaluziako egonaldiak?
5. Irakasle anitz izan dituzula entzun dut.
6. Zer - nolako harrera du flamenkoak gurean?
7. Nola bizi duzu flamenkoa?
8. Zertan ezberdintzen dira Askoa eta "La Pulga" ?
9. Zergatik miresten duzu Carmen Amaya?
10. Euskal dantza egin duzu inoiz?
11. Apirilean Poloniara zoaz. Zer duzu esku artean?

II. Patxi Laborda Larrea, dantza irakasle eta koreografoa (aurrez aurre Bilbo Musika Eskolan)

1. Nolatan hasi zinen euskal dantzan? Gurasoek irakatsita?
2. Urte luzez San Ferminetan dantzatu ondoren, zergatik hartuko duzu erretiroa aurretik?
3. Zerk ezberdintzen du euskal dantza gainontzeko dantzetatik?
4. Garai batean ezkontzea ei zen dantzaren helburua. Eta orain zer da bilatzen dena?
5. Plaza demokratizatu dela esan izan duzu inoiz.
6. Arritmikoa den jenderik bada?
7. Zer - nolako kaltea egin zion Elizaren pentsamoldeak euskal dantzari?
8. Zein dantzarekin gozatzen duzu gehien?
9. Nola sortzen dituzu koreografiak?

10. Nolatan otu zitzaizuen Aiko sortzea?
11. Zer - nolako tartea egiten diozue inprobisazioari?
12. Zergatik dituzue emakume gehiago klaseetan?

III. Ana Minguez Bazan, lindy hop dantzaria (aurrez aurre Donostian)

1. Manuel Vicent kazetariaren arabera, swinga ez da diruz ordaintzen. Dohain bat da. Zer deritzozu horri?
2. Nola sortu zen lindy hopa?
3. Lindy hop izenak Charles Lindberg hegazkinlaria omentzen al du?
4. Ameriketako dantza nazionala izan, eta goia jo ondotik, zergatik egin zuen gainbehera lindy hopak?
5. Nolatan hasi zinen lindy hopa dantzatzen?
6. Txapelketara joaten zara?
7. Zenbat dantzari izaten dituzu dantza gelan?
8. Zer ematen dizu swingaren aldaera honek?
9. Vintage janzkera garrantzitsua al da?
10. 2008an Manning-ekin, izan zinen dantzan. Nola oroitzen duzu esperientzia hura?

IV. Telmo Irureta Uria, zinema zuzendaria, antzezlea eta gidoilaria (aurrez aurre Donostian)

1. Zerk bultzatu zintuen ingeles magisteritza, eta pedagogia ikastera?
2. Behar berezia duten umeak laguntzeko oposaketak prestatzen ari zara, ezta?
3. Elena Iruretaren iloba izaki, antzerki mundua gertu izango zenuen gazte – gaztetik ...
4. Antzerki eskolan zein obra duzue esku artean?
5. Zein da antzeztu duzun paperik onena?

6. Euskaraz edo gazteleraz antzeztea nahiago?
7. Hiru film labur eginak dituzu jada. *Lepoaño* (2013) film laburrean musikak ezinbesteko papera jokatzen du. *Pisukideak-en* (2013) ordea, antzezpena da jaun eta jabe.
8. Hurrengo lanean zure buruaren berri emango duzu. Zerbait aurreratzerik bada?
9. Aspaldiko lagun bat ere buru belarri omen dabil zurekin lanean ...
10. Zuk zeuk egingo al duzu Telmo Iruretarena? Zaila al da norberaren burua interpretatzea?
11. Terapia gisa hartzen duzu?
12. Non aurkeztuko duzu lana?
13. Zer - nolako zuzendaria zara?
14. Antzezlea, zuzendaria eta gidoilaria izaki, zerk betetzen zaitu gehien?
15. Zergatik *Acenarío productions*?
16. Ama oso figura inportantea dela antzeman daiteke zure idatzietatik.
17. Gogoeta sakonak irakur daitezke zure blogean, umorez zipriztinduak, beti ere.
18. Egia al da urteak birritan ospatzen dituzula?
19. Zuzendari eta antzezle handien pare ikusiko zaitugu etorkizunean?

V. Maite Idirin Solatxi, abeslaria (aurrez aurre Ugaoko baserrian)

1. Txiki txikitatik kantatu izan duzu. Nondik datorkizu kantatzeko zaletasuna?
2. Kantatu ez ezik, bestelako diziplinak ere landu dituzu ...
3. Entzun dut amak animatu zintuela gitarra jo eta jende aurrean kantatzera.
4. Atahualpa Yupanqui erreferentetzat hartu izan duzu. Berarekin kantatu zenuen inoiz?
5. Zelan oroitzen duzu aurreneko kontzertua?
6. Hasierako kontzertu horrek bidea ireki zizun, eta ondotik diskoa etorri zen ...
7. Nolakoa zen Francoren garaiko zentsura?
8. Zergatik geratu zinen *Ez Dok Hamairutik* kanpo?
9. *Ez Dok Amairukoekin* liskarren bat izan duzula entzun dut ...
10. Zauritutako etakide bat laguntzematik egin zenuen ihes. Burdin barra artean bukatzearen beldur izan zara?
11. Nola biziraun zenuen erbestean?

12. Zergatik itxi zenuten *Zabal* liburu denda?
13. Musikara bueltatuz, zer dela - eta egin zenuen klasikoetara salto?
14. *Ortziken* taldean kantatu zenuen. Nola gogoratzen duzu garai hura?
15. 45 urte igaro dira aurreneko kontzertutik. Hamalau disko argitaratu dituzu.
Noiz dator hurrengoa?
16. Oraindik ere taula gainean jarraitzen duzu?
17. Egia al da adinean gora egitean, ahots tonuak behera egiten duela?
18. Zelan mimatzen duzu ahotsa?
19. Zer suposatzen du ohorezko euskaltzaina izateak?
20. Iridindarrak jenio asko duzuela esaten da, egia al da hori?

VI. Jokin Apalategi Begiristain, soziologoa, idazlea eta Idirinen senarra (aurrez aurre Idirindarren baserrian)

1. Zein hiru bitxikeria gertatu zitzaizuen *Zabal* liburu dendan?
2. Zer deritzozu Imanol Larzabal eta Mikel Azurmendiren gainean?

VII. Joseba Erkiaga Cilloniz, erregidorea (aurrez aurre Arriaga antzokian)

1. Musika ikasketarik egin duzu?
2. Zer suposatu zuen *Itoiz* –ek zuretzat?
3. 1982an arte taldean izan zinela irakurri dut ... Zer gertatu zen gero?
4. Nolatan hasi zinen erregidore lanetan?
5. Imajinatzen dut diziplina bakoitzean elementu ezberdinei eskaini behar zaiela arreta ...
6. Ez da gauza bera kanpoko edo barneko obra izatea, ezta?
7. 28 urte pasa dituzu hemen, aspertzeko tarterik izan duzu? Edo beti dago lana?
8. Izen handiko pertsonak ezagutu dituzu, harremanetan jarraitu al duzu eurekin?
9. Aulkian jesartzen den publikoak ere ezagun du zure ahotsa ... anekdotaren bat horren gainean?
10. Zein izan da ezustekorik handiena?
11. Emanaldi bat nabarmentzekotan, zein?
12. Musika sortzen jarraitzen duzu?

VIII. Eneko Axpe Iza, rap abeslaria (e-posta bidez)

1. *121 Krew*-n grafitiekin hasi, eta kantatzen bukatu zenuen. Nolatan?
2. Gaztelera hasi zineten rapeatzen. Zergatik egin zenuten euskarara salto?
3. Taldearen asmoa herria hankaz gora jartzea al zen?
4. Tas Tas irratian albisteak beste era batera konta zitezkeela irakatsi zenuen ...
5. Zuen afizio - ofizioan zer - nolako garrantzia du ezizenak?
6. Zertan ezberdintzen dira "Maisha MC" eta Eneko Axpe?
7. Ez omen dituzu oilarren norgehiagokak maite ... Zergatik?
8. Zer - nolako egoeran dago euskal rapa?
9. Zergatik ez du rockak beste oihartzun biak ala biak Ameriketarik etorri arren?
10. Zer - nolako esperientzia izan zen zuretzat Bertso Hop egitasmoa?
11. Zer ematen dio rapak euskarari?

NizuriTazuneri rap taldea, "Norzzone" eta "Fani" (Donostiako Xanti jatetxean)

1. Nola sortu zenuten *NizuriTazuneri* taldea?
2. Nondik dator izena?
3. Zer aldarrikatu nahi duzue?
4. Zer darabilzue esku artean?
5. Udaran jairik - jai egongo zaretela entzun dut ...

IX. Unai Neira Aiestaran "Norzzone", rap abeslaria (Donostiako Xanti jatetxean)

1. Baztertuta sentitu zara inoiz euskaraz aritzeagatik?
2. Bakarka bi disko dituzu: *Amairu Dok* eta *Maketa bizirik*. Nola sortzen dituzu hitzak?
3. Eta musika?
4. Oilar - jokoak maite dituzu?
5. Zer - nolako giroa dago euskal rap abeslarien artean?
6. Zer ematen dizu rapak?
7. Infernu pertsonaletik ateratzeko heldu zenion rapari, ezta?
8. Balio izan dizu?
9. Euskaltzaindiak ez du *rapero* hitza onartzen. Zer deritzozu horri?

X. Estefania Beneyto Lasa “Fani”, rap abeslaria (Donostiako Xanti jatetxean)

1. Nolatan hasi zinen rapeatzen?
2. Melodia edo hitza lehenengo?
3. Herria, langileak, euskara izaten dituzu hizpide idazterakoan. Zer dela eta?
4. Zelan uztartzen dituzu musika eta ikasketak?
5. Emakume bakarrenetarikoa zara gizonen artean ...
6. Matxismoa antzematen da taula gainetik?
7. Nola irudikatzen duzu etorkizuna?
8. Emakume gehiago ikusiko ditugu taula gainean?

XI. Ion Andoni del Amo Castro, telekomunikazioan ingeniaria, Soziologian lizentziaduna eta Gizarte Komunikazioan doktore (Durangoko Plateruena antzokia)

1. Zer - nolako garrantzia du musikak identitateak sortzerako garaian?
2. Gazteek musika kulturarik ez edukitzeak harritu nau. Gazteentzat, kanta ezaguna izatea da garrantzitsuena. Beraz, esploratzeari utzi diote eta ez dute ikuspuntu kritikorik. Nola liteke hori Internet izanik?
3. Azken 30 urteetan rock erradikala izan da jaun eta jabe, zergatik?
4. Zer dela - eta izan du rapak bide zail eta malkartsua?
5. Gaztetxeetan izan zuen parada lehenbizi, eta gero apurka - apurka zabaltzen joan zen, ezta?
6. Zer - nolako egoeran dago rapa egun?
7. Nola irudikatzen duzu etorkizuna?
8. Gaur egungo panorama laburbiltzeko *party and borroka* baliatuko zenituzke?

XII. Aitziber Garmendia Mendizabal, antzezlea (aurrez aurre Euskal Telebistako Donostiako Miramoneko egoitzan)

1. Nolatan piztu zitzaizun antzezteko kuriositatea?
2. Gezurra esanda hasi al zinen Beasaingo antzerki taldean?
3. Hemeretzi urterekin *Martin* telesailean egin zinen ezagun ...
4. Egin dituzun antzezlanen artean zein nabarmenduko zenuke?
5. Telebista, antzerkia edo zinema aukeratzekotan, zein?
6. Zein erregistrotan aritzen zara erosoan?
7. Iker Galartzarekin handik hona zabilta *Ondoko hilobiko tipoa* lanarekin. Zer - nolako harrera du?
8. "La Jaió" eta Gorane pertsonaien gidoiak zuk zeuk idazten dituzu, ezta? Zer edo zertan oinarritzen zara?
9. Zerbait idazteko gogoia duzula irakurri izan dut. Zerbait hori aurreratzerik bada?
10. Begoñarena egiten duzu *Txarribodan*, bizkaieraz gainera. Zer moduz moldatu zara?
11. Zuzenbide arloan aritu al zara inoiz? Zergatik?
12. Nola oroitzen duzu ikasle garaia?
13. Zer eskatzen diozu bizitzari?
14. Etorkizuna nola dator?
15. Nola irudikatzen duzu zure burua zahartzaroan?